

Guy Héraud

El Mundo del País Vasco, 1991-12-20.

Guy Héraud jauna aspaldidanik ezagutzen eta estimatzen dugu euskaldunok. Ez da, beraz, harritzekoa Miarritzera hitzaldi bat ematera etortzea, eta bertan (abendua 5) oihu hau botatzea: "Autodeterminazioarik gabe ez dago demokraziarik". Europako etni eta hizkuntzez 1946ez gero idazten ari den jurista eta Unibertsitateko irakasle ezaguna da; "politikan" sartu gabe geratu izan balitz, bizimodu eroso eta oparoa izango zen profesionala; baina Europako herrien federakuntzari eskaini dizkio bere jakituri eta arnasak azken hogeita hamabost urte hauetan. Euskal Herriaren pareko arazo historiko batzu izan dituen Alsazian jaio zen, eta berearekin batera geure herria ere gogoz aipatu du Europako federalismoaren predikuan. Idatzi ditu frantsesez: *Manu juridikoa eta jatorrizko ahalmena* (1946), *Etnien Europa* (1963), *Zer da etnismoa?* (1967), *Federazioaren hastapenak eta Federazio Europarra* (1968), *Europako herri eta hizkuntzak* (1968). Azken liburu honen eskaintzan dago, hain zuzen, Guy Héraud-en asmoren muina; Federico Mistral-ek behin idatzitakoa da: "Herri bat buruz behera esklabutasunean erorita ere bere hizkuntzari eusten badio, gorde du esklabutzaren kateetatik libratuko duen giltza". Miarritzen udaletxeko areto batean nazioarteko zuzenbidean irakasle denak emandako hitzaldian argi esan zuen: Estatua, indarkeriaren fruitua dela, eta gaur herrien jatorrizko eskubideen gainera Europako mendebalean lege gaiztoz gauzak egiten badira, laster etorriko da, orain ekialdean gertatu den bezala, herrien askatasun eguzkia gaudituko den eguna. Ez genioke geure seme eta bilobei gerra gaiztorik heredentzian utzi nahi; hobe dugu Europako mendebalean gizoni eta herriei dagozkien demokraziaren oinarriak gaurdanik jarriak utzi.